

## **BALIO PROPOSAMENA:**

- Balio proposamena bezeroek gure produktu edo zerbitzua aukeratzearen arrazoia da eta lehiakideengandik bereizten gaituena. Gure produktua ezberdintzeko eskaintzen ditugun ezaugarriak dira.

Gure enpresak ondorengo balioak eskaintzen ditu eta bezeroek hurrengo balioak kontuan hartzen dituzte.

**BERRITASUNA**→ Gure kasuan ordutegi malgu bat izango dugu. Beraz, gure zerbitzua soilik beharra duzunean erabiltzeko abantaila eskeintzen dugu. Horrek, zaintza zerbitzuaren kostua aldakorra izatea dakar.

**PERTSONALIZAZIOA**→ Gure enpresan hainbat zaintza zerbitzu ezberdin eskaintzen ditugu. Bezeroaren beharraren arabera, beraien beharretara egokitzen den zerbitzua eskainiko diegu.

**ERABILGARRITASUNA** → Gure negozioa adineko pertsonentzako bideratua denez, erabilera sinple bat hautatu dugu gure bezeroentzako. Oso modu sinplean gure zerbitzua eskatu dezake edonork, gure webgunearen bitartez.

**PREZIOA**→Gure zerbitzuen prezioa, zerbitzuaren arabera izango da. Hau da, bezeroak eskatzen duen arabera izango da, denbora eta zailtasuna kontuan hartuko dugularik

**ESKURAGARRITASUNA**→Gaur egun existitzen diren zaintza zerbitzuak garestiak dira eta pertsona askok ez dute zaintza zerbitzu egoki bat ordaintzeko dirurik. Gure zerbitzua besteengandik desberdina da. Izan ere, zaintza beharra duzunean bakarrik ordaintzen da eta horrek zaintzaren kostua asko jaisten du. Horrela, zaintza zerbitzua adineko pertsona guztientzako zabaldu eta eskuragarri jartzen dugu.

**KOSTUA MURRIZTEA**→ Zerbitzu bakoitzaren arabera ordaintzen denez, gure zerbitzuak askoz merkeagoak ateratzen dira hilabetero zaintzaile bati soldara bat ordaindu beharrean.